

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure produktua aurrera ateratzeko ezinbestekoa da bezeroak izatea, bezeroei esker lortzen dugulako hondakinen tasa murriztea eta gure negozioa aurrera eramatea. Horregatik, hasiera batean, bezeroak bilatzea gure helburuetako bat izango da. Horrez gain, proiektua aurrera eramateko gure berrikuntzei buruz hitz egingo diogu gizarteari.

Hau ondo atera dadin taldekide bakoitzak zeregin bat beteko du, trebeziak eta gustuak kontuan hartuta: Udane informatika esparruan aditua da. Urte asko daramatza informatika klase intentsiboak jasotzen, eta, horregatik, atal honetan erabat beharrezkoa dela uste dugu. Informatika klase horietan webguneak diseinatzen ikasi du: informazioa txertatzen, atal desberdinak antolatzen, argazkiak eta koloreak ipintzen... Sare sozialak ere berak kudeatuko ditu; izan ere, "cyber manager" izeneko kurtso bat egin du: oso ondo daki nola maneiatu sare sozialak, eta arriskuak ekidin ditzake. Hau gutxi balitz, jarraitzaile pila bat ditu, eta, beraz, bezeroak lortzea errazagoa gerta dakiguke. Twitter, Instagram, Facebook... sareak irekitzea pentsatu dugu. Gainera, telebistan ere albisteak iragarri dezakegu, eta honek ez liguke gastu handirik ekarriko, Udaneren amak bertan jarduten baitu.

Elene eta Amalurri dagokienez, ekonomialariak dira, eta, horregatik, diru eta kalkulu kontuez arduratuko dira. Betidanik gustatu izan zaizkie matematikak eta honi lotutako arloak, ekonomia bezala. Guzti honengatik, bi hauek bankuarekin kontaktuan jardungo dute. Gure ustez, beraiek ondo maneiatu dezakete bankuan irekiko dugun kontua, eta, arazoren bat ikusten badute, beraiek konpontzen saiatuko lirateke, bankuarekin hitz eginez, esaterako.

Iratik pertsonekin hitz egiteko abilezia handia dauka, eta, horregatik, bezeroekiko aurrez-aurreko harremanez arduratuko da. Norbaitek inolako zalantzarik izango balu, berarengana joan beharko luke eta berak zalantzak argituko lizkioke. Gainera, pertsona oso irekia da, eta, beraz, bezeroengana erraz iritsi daitekeela uste dugu. Bere esku geratuko lirateke beste enpresekiko harremanak eta salmentak ere.

Eider bezeroekin harremanetan jarriko da, baina ez aurrez-aurre Irati bezala, baizik eta telefono bidez; izan ere, gaur egun pertsona askok telefonoa erabiltzea nahiago dute, eta norbait honetaz arduratzea behar da. Gainera, sormen ugari duenez, lokalaren diseinuaz ere arduratuko da. Azkenik, berak gidatuko du erabiliko dugun autoa.

Hortaz aparte, taldeko partaide guztiok buru belarri poltsen produkzioan arituko gara, finkatutako helburuetara iritsi ahal izateko: beharrezko makina aktibatuta, poltsa zaharrekin listoiak egin, haien artean txirikordatu, josi eta amaitu.

Garraioari dagokionez, astero taldeko pertsona bati egokituko litzaioke banaketa lana egitea, eta lan hau txandakatuz joango ginateke.

Hasierako hilabeteetan bezero kopurua murrizta izango da, eta, horregatik, hasieran aipatu bezala publizitatea egitea guztiz beharrezkoa dela uste dugu. Astero taldekideak elkartuko gara bileratxo bat egiteko; bertan, astea nolakoa izan den aztertuko dugu, ea aldaketa nabarmenik izan den edota zer hobetu daitekeen.